

BERRIA- 4 DE JULIO DE 2007

http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=plaza&data=2007-07-04&orria=056&kont=001

Harri gorrien mezuaren bila

Euskal Herriko historia, ohitura eta kondairen berri bisitariei emateko, doako ibilbide turistikoa prestatu dute Arrigorriagan.

mikel carramiñana

Arrigorriaga

Bilbotik hamar kilometrora besterik ez dago Arrigorriaga, eta, hala ere, Bizkaia ezagutzera hurbiltzen diren bisitari gehienak ez dira inoiz herri horretako kaleetan zehar ibili. Bertoko askok ere gutxitan egin diote bisita Padurako ibarrean dagoen hiribilduari, orain arte horretarako aitzakiarik izan ez dutelako, seguruenik. Hutsune hori betetzeko asmoarekin sortu du Arrigorriagako Udalak, Lautso enpresarekin batera, *Harri Gorrien Mezua* izeneko ibilbide turistikoa, euskal lurraldeak bisitatzen dituzten kanpotarrek, edo bertokoek, herri horretako zein Euskal Herriko historia eta mitoak modu erraz eta arin batean ezagutzeko aukera izan dezaten.

Egitasmo hori gorpuzteko aitzakia onenaren bila, Jose Luis Urrutia (Bilbo, 1958) idazlearengana jo zuten, eta hark Padurako batailaren mitoari heldu zion, bisita turistikoan murgilduko direnei Euskal Herriko iraganean bidaiatzeko aukera emateko. Duela mila urte baino gehiago gertatu omen zen bizkaitarrak eta asturleondarrak aurrez aurre jarri zituen bataila. Erdi Aroko kondairek diotenez, 888. urteko ekainean borrokatu ziren Ordoñoko printzeak eta Jaun Zuriak gidatutako armadak. Kondairen arabera, garaile atera ziren euskaldunak, eta hori izan zen Bizkaiko jaurerria sortzeko lehenengo urratsa.

Kondairak jasotako bataila horretan, ehunka gizonek isuri zuten odolak eman ei zion egungo izena Arrigorriagako herriari, eta, hori abiapuntutzat hartuta, Padurako gerraz gain, Euskal Herriko iraganean zortzi geldioneko bidaia proposatzen du Harri Gorrien Mezuak. Arrigorriagako toki adierazgarriak dira zortziak, eta gai batekin lotzen ditu bisitako gidoiak. Herriko eskola zaharrean, esate baterako, euskararen jatorriaren berri izango dute bisitariak; herri kirolak ezagutuko dituzte pilotaleku txikian eta Andra Mari Magdalena elizan, berriz, euskal mitologiaren berri izango dute. Azken finean, Udaleko arduradunak konturatu dira, alkatea bera tartean, Guggenheim museoa edo Donostiako badia ikustera datozen kanpotarrek ezer gutxi ikasten dutela Euskal Herriari buruz, ez

baitago horretarako aukera ematen dien turismo eskaintzarik.

Arrigorriagan prestatu duten doako ibilbide turistikoari esker, euskaldunei buruzko oinarritzko kondairak ezagut ditzakete turistek, eta bertoko eskola umeeek, era berean, Euskal Herriko historia modu atsegin batean ikasi ahal izango dute.

BIDAIATZEKO TRESNAK. Egitasmo bitxia da Harri Gorrien Mezuaren bidez aurkeztutakoa, besteak beste, azpiegitura handirik sortu behar izan ez dutelako ezarritako asmoa betetzeko. Herriko tokirik adierazgarrienak, komiki bat eta mp3 musika entzuteko Apple enpresaren iPod ezagunetako bat besterik ez da behar Arrigorriagako eta Euskal Herriko historian mendeetako saltoak egin ahal izateko. Komikiaren protagonista 1930. urtean Arrigorriagara heldutako kazetari poloniar bat izango da, Wojcietx Kolakowski. Bisitariak egingo duten ibilbide turistikoa Kolakowskik berak istorioan egingo duena izango da, baina komikian ikusgai izango duenez gain, iPod tresnaren bidez kokapen bakoitzari dagokion entzunezko gida entzuteko aukera dauka bisitariak.

Jose Luis Urrutiak prestatu ditu euskarri bietarako gidoiak, eta Javi Kintanak sortu ditu marrazkiak. Entzunezko gidako ahotsen eta doinuen artean ere, izen ezagunak aurki daitezke; hala nola Ibon Koteron musikaria eta Kepa Kueto esataria, *Euskal Herria Lau haizetara* dokumentaletan ageri dena. Harri Gorrien Mezua urriaren 31 arte ezagutzeko aukera dago, asteazkenetik igandera, astelehena eta astearte taldeentzako bisitak hartuko baitituzte. Ordutegiak eta bestelako datuak sarean dagoen gunean ezagut daitezke, www.harrigorrienmezua.com helbidean, hain zuzen ere.